



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko urriaren 15a

24. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da sortu beharreko fiskal-lanpostuak sor ditzan, Nafarroako populazio osoari zerbitzu emateko. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztu du (2. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du 'Medicamentos a un Precio Justo' legegintzako herri-ekimenarekin, zeina Diputatuen Kongresuan eztabaidatuko baita. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Arkeologiako plan zuzendaria taxutu dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kultur intereseko ondasun deklaratu dituzan Oronozko eta Endarlatsako zentral hidroelektrikoak. Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen da abian jar dezan lantalde bat, tokiko administrazio osoan administrazio elektronikoa ezartzeko lanak koordinatuko dituen. Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, harrera-planak eta -programak taxutzen dituenean, kontuan izan dezan emakumeak eta neskatok bereziki zaurgarriak direla lekualdatze-arriskua areagotzen duten klima-aldaketaren inpaktuen aitzinean. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (8. or.).

#### G S A I L A:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Batzarde berezia, Ekialdeko Pirinioei buruzko ponentzia parlamentarioaren txostena eta Parlamentuak 2018ko azaroaren 8an egindako Osoko Bilkuran onetsitako erabakia betetzeari buruzko jarraipena eta kontrola egitekoa. Funtzionamenduari buruzko arauak (10. or.).
- Kontuen Ganberako datu-babeserako ordezkari hautatzea (11. or.).

**E saila:**

**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da sortu beharreko fiskal-lanpostuak sor ditzan, Nafarroako populazio osoari zerbitzu emateko.**

*BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita sortu beharreko fiskal-lanpostuak sor ditzan, Nafarroako populazio osoari zerbitzu emateko.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltzaren 2019ko oroitidazkiak, 2018ko ekitaldiari buruzkoak, gertakari pertsonalei eta antolaketa alderdiei buruzko I. kapituluko 1. puntuan nabarmentzen duenez, 2010. urteaz geroztik Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltza 21 fiskalek osatzen dute (16k fiskalaren kategoria pertsonala dute eta 5ek abokatu-fiskalarena) eta 2015. urteaz geroztik premialdiko lanpostu bat dago, ordezko abokatu-fiskalarena, zeina luzatzen jarraitzen baita, emateko inguruabarrek oraindik ere bere horretan irauten dutelako.

Halaber, memorian adierazten denez, bederatziretortan ez da aldaketarik batere gertatu plantillako lanpostuen kopuruan, eta horren ondorioz Nafarroan errekor tristea dugu, zeren eta biztanle kopuruagatik fiskal gutxien dituen fiskaltza baita gurea; izan ere, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren datuen arabera, 100.000 biztanleko dugin ratioa 3,27 fiskalekoa da, batez besteko nazionala 5,2koa den bitartean, eta probintzia bakarreko gertuko erkidegoekin, hau da, Kantabriarekin edo Errioxarekin alderatuta, ikus dezakegu konparaziozko bidegabekeria handia dela. Kantabrian, 2018an 60.000 biztanle gutxiago izanik, fiskal kopuru handiagoa dago: Nafarroan baino 29,8 fiskal gehiago lanpostu finkoarekin; Errioxan, berriz, biztanleen erdiarekin, 13 fiskal daude –horren arabera Nafarroari, biztanle kopuruagatik, orain dituen baino 10 fiskal gehiago legezkieke–.

Nafarroan fiskalen eta jurisdikzio-organoen arteko batez bestekoa 2,19 da organo fiskal bakoitzeko; ratio hori ateratzen da dauden 46 organoak 21 fiskalen artean zatituz, eta handiagoa izanen da 2020ko urtarrilean Iruñeko Familia Epaitegi berria sortzen denean.

Zer dakar praktikan fiskal kopuru horrek? Hain zuzen ere gehiegizko lana oraingo fiskalentzat, kontuan harturik bi lurralde-atal daudela: Iruñekoa, Agoitz, Lizarra eta Iruña biltzen dituenak, eta Tuterakoa, Tafalla eta Tuterak biltzen dituenak; haietariko batzuek, gainera, arlo espezializatuak dituzte, eta fiskalak banatu behar izaten dira Nafarroan dauden bost barruti judizialen artean, eta bost barruti horietan guardiak egin behar izaten dira.

Herritarrei dagokienez, fiskalen ratio txiki horren ondorioa da auzien kudeaketan atzerapenak gertatzen direla. Atzerapen horiek, batez ere, honako hauetan gertatzen dira: zigor instrukzioaren fasean; legeak ezarritako epeetan –

epaiketako agerraldietan familia epaitegietako koordinazioak huts egiten duelako, data-ezartzeak gainjartzen direlako eta epaiketak asteko egun jakin horietan metatzen direlako, eta adingabeen azterketetan, beraien berezitasunagatik. A-tzerapenek eragiten dute, bestetik, materialki ezinezko gertatzea genero-indarkeriako biktima guztien deklarazioetara, atxilotuen deklarazioetara, espetxeko agerraldietara eta abarretara agertzea; edo halakoan ordez beste mota bateko jarduketak egitea, zeinek eragozten baitute herritarrek benetako eskubidea edukitzea beren eskubide eta interesak babestuen izan daitezzen, legeak ezartzen duen moduan, eta jardunbide egokien gaineko iradokizunak bete daitezzen. Azken batean, a-tzerapenek justizia okerragoa izatea ekartzen dute, kalitatezko zerbitzu publiko bat izan beharrean.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du sortu beharreko fiskal-lanpostuak sor ditzan, Nafarroako populazio osoari eta egun diren jurisdikzio organoei zerbitzu emateko, Nafarroako Justiziaren beharrezanean erantzun, haren eraginkortasuna eta kalitatea areagotu eta herritarrei eskubideen babes judiziala bermatze aldera.

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitateko Fiskaltzari uneoro behar diren giza baliabideak eman diezazkion, bermatze aldera Konstituzioak ezarritakoa, hau da, legekotasunaren alde, herritarren eskubideen alde eta legeak zaindutako interes publikoaren alde Justiziak egiten duen lana sustatzea, bai ofizioz bai interesdunek eskaturik.

Iruñean, 2019ko urriaren 9an

Foru parlamentaria: Blanca Regulez Álvarez

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du 'Medicamentos a un Precio Justo' legegintzako herri-ekimenarekin, zeina Diputatuen Kongresuan eztabaidatuko baita.**

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu 'Medicamentos a un Precio Justo' legegintzako herri-ekimenarekin, zeina Diputatuen Kongresuan eztabaidatuko baita.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Osasunaren arloko estatu mailako hainbat elkarteek –Asociación en Defensa de la Sanidad Pública de Madrid (ADSPM), Asociación por un Acceso Justo al Medicamento (AAJM), Consejo de Estatal de Estudiantes de Medicina (CEEM), Federación de Asociaciones Medicus Mundi, Fundación Civio, Plataforma de Afectados por Hepatitis C (PLAFHC) eta Salud por Derecho– legegintzako herri-ekimen bat sustatu dute, zeinarekin bat egin duten beste elkarte batzuek; honako hauek, besteak beste: Apoyo Positivo, Asociación de Usuarios de la Sanidad de la Región de Murcia, Coordinadora de Organizaciones de Cooperación para el Desarrollo, Farmacritixs, Farmamundi, Federación de Planificación Familiar, Federación Española de Estudiantes de Medicina para la Cooperación Internacional, Grup del Medi-

cament de la Societat Valenciana de Medicina Familiar i Comunitaria (SOVAMFIC), No Gracias eta Sociedad Española de Salud Pública (SESPAS).

Legegintzako herri-ekimen horren xedea da, beraz, osasun arloko administrazioen gaitasuna indartzea, prezio justuak ahalik eta gardentasun handienarekin eztabaidatu eta finkatzeari begira, behar diren tratamenduak bermatuz eta osasun sistema publikoaren iraupena arriskuan jarri gabe. Halaber, ekimen horrek sustatu nahi du medikamentuen ikerketa publikoa eta, orobat, osasun arloko profesionalen prestakuntza independentea, eta horretarako funts bat sortu nahi du, berrikuntzetara modu errazagoan iristeko eta preskripzio egokia bermatzeko, gainpreskripzioa saihestuz eta bidea emanaz alferrikako medikazioaren ondorio negatiboak murrizteko. Funtsa finantzatuko da Osasun Sistema Nazionalari salmenta bolumenaren arabera egindako ekarpenen bidez, zeinak aurreikusten baitira uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuan, Medikamentuen eta Osasun Produktuen Bermeei eta Erabilera Arrazionalari buruzko Legearen testu bategina onesten duen horretan. Ekimenaren asmoa da medikuntzan murriztea interes-gatazkak eta balizko lerrabideak eta, halaber, arautzea farmazia-industriak osasun arloko erakunde eta profesionali egiten dizkien ordainketen argitalpena, gure inguruko herrialdeen ildotik.

Kongresuko Mahaiak izapidetzeko onartu zenez aipatu ekimena, erakunde proposatzaileek bederatziz hilabeteko epea dute Kongresuan eztabaida hasteko behar diren 500.000 sinadurak bilatzeko.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duten talde parlamentarioek ondoko erabaki proposamena aurkezten dute:

1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du “Medicamentos a un Precio Justo” legegintzako herri-ekimenarekin, zeina Diputatuen Kongresuan eztabaidatuko baita.

2. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa berresten du, medikamentuak finkatu eta erostekoan gardentasuna eta kontu-ematea aldeztu dituen. Hortaz, eskatzen du farmakoen kostua finkatzen duen batzordearen aktak eta dokumentuak argitara daitezela eta jakin dadila zer prezio unitariotan erosten diren osasun publikorako medikamentuak.

3. Nafarroako Parlamentuak Diputatuen Kongresua premiatzen du, arautu ditzan laborategiek osasun arloko erakunde eta profesionali egiten dizkieten ordainketak eta horiek herritarren eskura egon daitezela.

4. Nafarroako Parlamentuak bere babesari adierazten die merkataritzakoa ez den ikerketa klinikoari eta osasun arloko prestakuntza independenteari. Hortaz, Espainiako Gobernuari premiatzen du Osasun Sistema Nazionaleko Merkataritzatik kanpoko Saiakuntza Klinikoen Sarea sortzea bultzatzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 9an

Foru parlamentariak: Javier Lecumberri Urabayen, Koldo Martínez Urionabarrenetxea, Ainhoa Aznárez Igarza eta Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Arkeologiako plan zuzendaria taxutu dezan.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Arkeologiako plan zuzendaria taxutu dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzórriz Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Arkeologiako plan zuzendaria taxutu dezan.

Nafarroak bere arkeologia-ondarea babestu behar du, eta zeregin hori baldintzarik onenetan aztertuz eta ikertuz bete behar du, gure iraganari buruzko informazio erreala izan dezagun. Andelos, Arrada, Arellano, Eslaba, Berbintzana, Cascante... Horra arkeologiari buruzko proiektuak bizirik dauzkaten Nafarroako herrietako zenbait.

Egia da Nafarroako arkeologia-inbentarioa estatuko hoberenatariko bat dela gaur egun bolumenari eta informazioaren tratamenduari dagokionez. Baina egia da, orobat, Nafarroako arkeologia-ondarea aberatsa eta anitza dela, eta horren tratamendu desegoki batek arriskuan jarriko luke ondare hori. Aztarnen kontserbazio- eta kontsolidazio-lana azterketakoa eta analisisikoa bezain garrantzitsua da. Alegia, Nafarroako Gobernuak, Kultura Departamentuko Ondarearen Ataletik, jarduketa-esparru argi eta egoki bat ezarri behar du.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du albait lasterren Nafarroako Arkeologiako plan zuzendaria taxutu dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 10ean

Eleduna: Ramón Alzórriz Goñi

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kultur intereseko ondasun deklara ditzan Oronozko eta Endarlatsako zentral hidroelektrikoak.**

### *ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kultur intereseko ondasun deklara ditzan Oronozko eta Endarlatsako zentral hidroelektrikoak.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kidea izan eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da kultur intereseko ondasun deklara ditzan Oronozko eta Endarlatsako zentral hidroelektrikoak.

2015ean alarma piztu zen Life Irekia proiektua (Lite 14 Nat/Esc/000186) ezarriko zela-eta. Proiektuaren helburu nagusia honako hau da: Kantauriko ibaien arazo nagusizat jotzen dena – horien fragmentazioa– leheneratzea, horien konektibitatea murrizten duelako.

Horrek esan nahi du zenbait presa txiki eraitziko direla Bidasoa ibaian eta ibai horren adarretan, uste baita ekosistemak aldatu egiten direla eta espezierik sentiberenen (ugaztun erdiakuatikoen eta arrainen) banaketa-eremua murriztu edo fragmentatu egiten dela.

Proiektu hori abiarazi zenetik jada egin dira aurreikusitako zenbait jarduketa; esate baterako, Endarlatsako eta Zalaingo presa txikiak eraistea Beran.

Inplikaturako administrazioek Ingurumen Departamentuaren bidez bideratu dute auzia, “oztopoak kentzea” eta “faunari pasatzen uztea” bezalako kontzeptuak erabilia.

Horrenbestez, hurrengo urteotan ikusiko dugu nola desagertzen diren Nafarroako kultur ondarearen elementu argi eta nabarmenak, zentral hidroelektrikoak kasu.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bestelako aukera bideragarri eta maiz erabiliak azter ditzan ibai guztietako presa txikiak salbatzeko.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kultur intereseko ondasun deklara ditzan Oronozko eta Endarlatsako zentralak, uste baitu interes historiko eta artistikoa daukatela eta desagertzeko arriskuan daudela.

Iruñean, 2019ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena



## **Mozioa. Horren bidez, Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen da abian jar dezan lantalde bat, tokiko administrazio osoan administrazio elektronikoa ezartzeko lanak koordinatuko dituena.**

*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea interpelazio baten ondoriozko mozioa, Pablo Azcona Molinet jaunak aurkezturikoa, zeinaren bidez Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen baita abian jar dezan lantalde bat, tokiko administrazio osoan administrazio elektronikoa ezartzeko lanak koordinatuko dituena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa hurrengo Osoko Bilkuran izapidez eta ezartzea zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dela.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Pablo Azcona Molinet parlamentari jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, 10-19/ITP 03 espediente-zenbakiko interpelaziotik heldu den honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko 11/2007 Legeak administrazio publikoei zenbait betekizun ezarri zien –eta horien artean, toki administrazioari– administrazio digitalaren arloan, herritarrei bermatze aldera zuzemenak eta komunikazioak bide telematikoak egin ahal izatea administrazio horietan.

Egia da legeak indarra hartzea malgutasunez ezarri zitzaizela toki entitateei.

Legearen xedapen askok 2009ko abenduaren 31n hartu behar zuten indarra, “baldin eta horretarako aurrekonturik badago”.

Kasu honetan, aldiz, Legeak honako hau ezarri zuen: “diputazioek behar diren zerbitzuak eskaini ahal izango dituzte zerbitzuok eskaintzeko beharrezkoak diren antolakuntza eta baliabide teknikoak ez dituzten udalerrien esparruan eraginkortasuna bermatzeko”.

Legearen xedapen horrek berak honako hau ezarri zuen: “Autonomia erkidegoek eta Toki

Administrazioko entitateek, baldin eta lege honen 6. artikuluan aitortutako eskubideak 2009ko abenduaren 31tik aitzina baliatu ezin badituzte beren eskumeneko prozedura eta jarduketa guztietan, onetsi eta publiko egin beharko dituzte horretarako beharrezkoak diren programak eta lan-egutegiak, bakoitzaren aurrekontu-aurreikuspenak aurreikuspen, xeheki aipatuta herritarrek zer fase-tan exigitzen ahalko dituzten eskubideak”.

Geroago, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak anbizio handiko manu-multzo bat jaso zuten beren artikuluetan, zeinen bidez bermatu behar baitzen Administrazioa zeharo digitalizatzea bere prozesuei eta herritarrekiko harremani dagokienez.

Araukak 2018ko urrian jarri zuen muga arlo horretako xedapen guztiak bete zitezten. Alegia, data horretarako –2018ko urrirako– gure administrazioek osaturik eduki behar zuten digitalizazioa prozeduretan, artxiboetan, espedienteetan nahiz mota guztietako komunikazioetan.

Data hori hurbil zela eta helburu horiek iritezinak zirela ikusita, Gobernu zentralak bi urteko luzapena ezarri zuen Europar Batasuneko zenbait zuzentzauren transposizioari buruzko abuztuaren 31ko 11/2018 Errege Dekretuan betekizun horien parte bat ezartzeko. Luzapena 2020ko urriaren 2an bukatuko da.

Ikusita toki esparruak laguntza behar duela administrazio elektronikoa egiaz ezartzeko eta ikusita Nafarroako Gobernuak, diputazioa ere badenez, dauzkan betebeharrak, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen du gehienez ere hilabeteko epean departamentuen arteko eta administrazioen arteko lantalde bat abian jar dezan, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren parte hartzearekin, Toki Administrazio osoan administrazio elektronikoa ezartzeko beharrezkoak diren lanak koordinatzen hasiko dena.

Iruñean, 2019ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, harrera-planak eta -programak taxutzen dituenean, kontuan izan dezan emakumeak eta neskatoak bereziki zaurgarriak direla lekualdatze-arriskua areagotzen duten klima-aldaketaren inpaktuen aitzinean.**

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK, NAFARROAKO PODEMOS AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak, Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita, harrera-planak eta -programak taxutzen dituenean, kontuan izan dezan emakumeak eta neskatoak bereziki zaurgarriak direla lekualdatze-arriskua areagotzen duten klima-aldaketaren inpaktuen aitzinean.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Klima-aldaketak ez dauzka ondorio berberak ez planeta osoan, ezta mundu osoan epe luzera ere.

Nazio Batuen arabera, jada badira 64 milioi pertsona desplazaturik klima-aldaketaren ondorioak direla kausa, eta Ingurumenerako Nazio Batuen Programaren arabera 2050ean 200 eta 300 milioi pertsona inguru egonen dira –munduan 9.000 milioi pertsona bizi gara– ingurumenarekin lotutako arrazoiengatik desplazaturik.

Klima-aldaketa, gainera, “mehatxu-biderkatzaileria” da: ezegonkortasun ekonomiko eta politikoa areagotzen du, ezegonkortasunaren ondorioak larritzeaz gain; bat-bateko hondamendiak

–esaterako, uholdeak eta ekaitzak– biziagotzen ditu, bai eta pitinka gertatzen diren hondamendiak ere; esaterako, lehorteak eta desertifikazioak. Hondamendi horiek orobat eragiten dute uztak galtzea, gosea handitzea eta hiriguneetan pilamendu-egoera larritzea. Krisi horiek artegatasun politikoa sutzen dute eta gerraren ondorioak gaiztotzen dituzte; hortaz, lekualdatze gehiago gertatzen da.

Azken datuek erakusten digutenez, nahitaezko lekualdatzeen mende dagoen populazio globala nabarmen handitu da azken bi hamarkadotan; 1999tik 2011ra, aldiz, lekuz aldatuen zenbatekoak egonkorrak ziren. Klima Aldaketari buruzko Gobernuen arteko Taldearen estimazioen arabera, litekeena da, baldin eta arintze-neurririk hartzen ez bada, klima-aldaketak gaindiaraztea natur sistemak egokitzeko ahalmena.

Nazioarteko segurtasunaren esparruan, klima-aldaketa sartuta dago jada estatu askoren agendetan; Espainiaren kasuan, Nazioaren Segurtasunerako 2013ko Estrategian jada jasota zegoen klima-aldaketa, honako hau baitzioen: “klima-aldaketa da XXI. mendeko ingurumen- gizarte- eta ekonomia-erronka nagusia, garrantzi handiko erronkak dakartzana segurtasunari begira; adibidez, edateko uraren eskasia, elikagaiak ekoizteko baldintzen arloko aldaketa handiak, baliabide energetikoen gaineko lehia areagotzea eta hondamendi naturalak –uholdeak, ekaitzak, lehorteak, baso-suteak edo bero-boladak– areagotzea. Ingurumen-aldaketa horiek orobat handiagotu ditzakete migrazio-presioak eta, horrenbestez, igarotze-eremuetan eta destinokoetan tentsioak areagotu ditzakete, bai eta zenbait estatutako ahultasuna handitu ere”.

Gainera, Genevako 1951ko Konbentzioan lekuz aldatutako pertsonaren kategoria berri hori jasota ez zegoenez, Norvegiak eta Suitzak Nansen ekimena abiarazi zuten XXI. mendeko klima-aldaketari eta lekualdatzei buruzko Nansen Konferentziaren ostean, zeina Osloin egin baitzen 2011ko ekainean. Ekimena nazioarteko kontsulta-prozesu gisa sortu zen, kontsentsu orokor bat sor zezakeelakoan ingurumen-arrazoiengatik eta



klima-aldaketarengatik lekualdatzeen arazoari ekiteko interesa daukaten estatuen artean. Ekimenak xede du agenda operatibo bat sortzea, zeinaren azken helburua bailitzateke kontsentsu bat ezartzea estatuen artean, ingurumen-arrazoiengatik lekuz aldatutako pertsonak babesteko natur-hondamendien eta klima-aldaketaren ondorioen testuinguruan.

Ondo asko dakigu herrialde industrializatuak direla berotegi-efektuko gasen emisio handienak egin dituztenak historian zehar beren produkzio eta kontsumo eredurekin: azken 150 urteetako berotegi-efektuko gasen % 80 herrialde industrializatuetatik heldu dira. Eta hala izaten jarraitzen du, “gorabidean diren herrialdeekin” batera (Txina, India edo Brasil). Halere, tropikoen artean kokaturik dauden herrialdeak dira batez ere klima-aldaketak gehien ukitu eta mehatxatutakoak, eta hor kokatzen dira, hain zuzen ere, herrialde txiro gehienak. Pertsona ahulenak eta klima-aldaketan gutxien eragin dutenak ari dira pairatzen klima-aldaketaren ondorioak. Hortaz, nazioarteko erki-degoak –bereziki, potentzia industrialek– bere ardurei aurre egin behar die arlo horretan.

Baina ezin dugu ahaztu emakume ekintzaileen egoera, bereziki kezagarria delako. Eta oso gogoan izan behar ditugu munduan zehar giza eskubideak aldeztu dituzten pertsona guztiak ere, gero eta eraso gehiago pairatzen baitituzte ingurumenaren, feminismoaren, bakezaletasunaren, antikapitalismoaren... aldeko ekintzaileak izate hutsagatik.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du harrera-planak eta -programak taxutzen dituenen kontuan izan dezan emakumeak eta neskatok bereziki zaurgarriak

direla lekualdatze-arriskua areagotzen duten klima-aldaketaren inpaktuen aitzinean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nansen ekimena babes eta susta dezan, ingurumen-arrazoiak direla-eta mugen artean lekualdatutako pertsonak babesteko praktikak eta tresnak ahalbidetzera eta adostera bideratutako ekimenak bultzatze aldera, lekualdatze horiek industria multinazionalak jatorriko herrialdean eragindakoak izan nahiz klima-aldaketak herrialde horietan eragindako efektuengatik izan.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du klima-aldaketaren aurka borrokatzeko Parisko Akordioaren helburuak bete ditzen eta harago joateko ahaleginak biderka ditzen, ekidite aldera berotze globalak jarrai dezan dauden desberdintasunak –lekualdatze-arriskua areagotzea eragiten dutenak– areagotzen.

4. Nafarroako Parlamentuak ingurumenaren aldeko ekintzaileen eta giza eskubideen defenda-tzaileen hilketak salatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

5. Nafarroako Parlamentuak eutsi egiten die 2030eko Agendaren konpromisoei eta planetaz denaz bezainbatean adierazpenaren atarian jasotzen denari: “Planeta degradazioaren aurka babestea, baita kontsumoaren eta produkzio jasangarriaren, natur baliabideen kudeaketa jasangarriaren eta klima-aldaketari aurre egiteko neurri urgenteen bidez ere, halako moduan non gaur eguneko nahiz etorkizuneko belaunaldien beharrianak ase ahal izan daitezen”.

Iruñean, 2019ko urriaren 10ean

Foru parlamentariak: Javier Lecumberri Urabayen, Ainhoa Aznárez Igarza eta Marisa de Simón Caballero

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Batzorde berezia, Ekialdeko Pirinioei buruzko ponentzia parlamentarioaren txostena eta Parlamentuak 2018ko azaroaren 8an egindako Osoko Bilkuran onetsitako erabakia betetzeari buruzko jarraipena eta kontrola egitekoa.**

*FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUAK*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 2019ko urriaren 7ko erabakiaren bidez, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, batzorde berezia eratu zen, Ekialdeko Pirinioei buruzko ponentzia parlamentarioaren txostena eta Parlamentuak 2018ko azaroaren 8an egindako Osoko Bilkuran onetsitako erabakia betetzeari buruzko jarraipena eta kontrola egiteko.

Erregelamenduko 63. artikuluan xedatutakoarekin bat, hona ERABAKIA:

**1.** Batzorde horren eraketa, antolamendu eta funtzionamenduari buruzko honako arau hauek onestea:

“Lehena. Batzorde berezia da Ekialdeko Pirinioei buruzko ponentzia parlamentarioaren txostena eta Osoko Bilkurak onetsitako erabakia betetzeari buruzko jarraipena eta kontrola egiteko Batzordea.

Bigarrena. Talde parlamentario edo parlamentarien elkarte bakoitzeko kide batek osatuta egonen da batzordea. Bere erabaki guztiak boto ponderatuaren sistemaren bitartez hartuko ditu, batzordeburuaren hautaketa barne. Eledun bakoitzak, bere taldea edo elkartearen zenbat foru parlamentariarik osatzen duten, horrenbeste boto edukiko ditu batzordean.

Hirugarrena. Batzordea eratzeko bilkura Legebiltzarreko Mahaiak erabakitzen duen egunean egingen da, talde parlamentarioek eta parlamentarien elkarteak Batzordean izanen dituzten ordezkariak hautatu ondoren.

Laugarrena. Talde parlamentarioek eta parlamentarien elkarteak heldu den 2019ko urriaren 17ko 17:30a baino lehen jakinaraziko diote Legebiltzarreko Mahaiari nor diren haiek batzordean izanen dituzten ordezkariak.

Bosgarrena. Batzordea eratzeko bilkuran batzordeburua hautatuko da; hura ez badago, batzordekiderik zaharrena ariko da haren ordezkari. Batzordeari laguntzen dion legegalaria izanen da batzordeko idazkari.

Seigarrena. Batzordeak laguntza eta lankidetzara eskatu ahalko dizkio Nafarroako Gobernuari, eta, Legebiltzarreko Lehendakariaren bidez, egoki jotzen dituen kargudun eta funtzionarioak batzordera etor daitezkeen eskatu ahalko du, edo beharrezkoak diren txostenak egin daitezkeen. Orobat eskatu ahalko du arlo horretako beste pertsona eta aditu batzuk ere etor daitezkeen.

Zazpigarrena. Batzordearen bilkurak ez dira jendaurrekoak izanen. Hala ere, hedabideen ordezkariak, nortasuna behar bezala frogatuta, joaten ahalko dira batzordera, bilkura horiek isilpekoak direnean izan ezik. Hedabideak joan daitezkeen bilkurak ikus-entzunezko bitartekoak erabiliz erretransmititu ahalko dira.

Batzordearen bilkurak isilpekoak izanen dira bere kideen gehiengo osoak hala erabakitzen duenean, batzordeko lehendakariak, bi talde parlamentariok edo batzordeko kideen bostenak hala eskaturik. Isilpeko izaerako bilkura bat bukatu ondoren, Batzordeburuak hartu diren erabakien berri eman ahalko die hedabideei.

Zortzigarrena. Batzordea agindutako lana bukatzean iraungiko da eta, betiere, legegintzaldia amaitzean.

Bederatzigarrena. Batzordearen antolamenduari eta funtzionamenduari dagokienez arau hauetan aurreikusi ez den guztian aplikatuko da Legebiltzarreko Erregelamenduak batzorde berezietarako oro har xedatzen duena eta, halakorik ezean, batzorde arruntetarako xedatzen duena”.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Kontuen Ganberako datu-babeserako ordezkari hautatzea.

2018ko maiatzaren 25ean indarrean sartu zen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (DPBEE). Araudi hori osatzeko, Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa onetsi zen.

DPBEEko 37. artikulua xedatzen du ezen tratamendu-arduradunak behartuta daudela datu-babeserako ordezkari (DBO) bat hautatzera, tratamendua egiten duena agintari edo erakunde publiko bat denean.

Ordezkararen posizioa eta eginkizunak DPBEEan bertan arautzen dira, xedatuz ordezkaria izanen dela zeregin gisa duena entitate arduradunari jakinaraztea zein diren datu-babesaren arloan dituen legezko betebeharrak, bai eta horri buruzko araudia betetzen dela zaindu edo gainbegiratzea, kontrol-agintaritzarekin lankidetzan aritzea eta agintaritzea horren eta entitate arduradunaren arteko kontakturako gune gisa jardutea ere.

Ordezkararen profilaz denaz bezainbatean, Europar Erregelamenduak zehazten du hura hautatuko dela dituen dohain profesionalak aintzat harturik; bereziki, dituen zuzenbide-ezagutza espezializatuak eta datu-babesaren alorrean duen eskarmentua.

2018ko urriaren 1eko ebazpenaren bidez, Kontuen Ganberako lehendakariak Gemma Sánchez Lerma legegaria izendatu zuen erakunde honen datu-babeserako ordezkari urtebeterako.

Gemma Sánchez Lerma legegaria erakunde honen datu babeserako ordezkari izendatu zene-

tik urtebeteko epea iraganik, idazkari nagusiak proposatu du datu-babeserako ordezkari izendatzea erakunde honetako legegari José Contreras López jauna.

Arestikoa gorabehera, lehendakaritza honek, erakundearen auditoreei entzun ondoren, indarreko araudia betez eta dagozkion ahalmenak eta eskumenak erabiliz,

**EBAZTEN DU:**

**Lehena.-** Kontuen Ganberako legegari José Contreras López jauna erakunde honen datu-babeserako ordezkari izendatzea, zeinak bete beharko baititu arestian aipaturiko 2016/679 Erregelamenduan aurreikusitako aholkularitzea- eta gainbegiratze-eginkizunak.

**Bigarrena.-** Ezartzea izendapen honen iraupea bi urtekoa izanen dela 2019ko urriaren 11tik aitzina, eta Kontuen Ganberaren informatikako langileek eman beharreko laguntza teknikoa jasoko duela bere eginkizunak betetze aldera. Ordezkariek, halaber, izanen du beren eginkizunak izatera pertsonaleko datuen babesari buruzko indarreko araudiari jarraikiz bete behar dituzten erakundearen langileen lankidetzak.

**Hirugarrena.-** Ebazpen hau José Contreras López jaunari, Datu-babeserako Espainiako Agentziari eta Kontuen Ganberako idazkari nagusiari zein langileei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta erakundearen web orrian argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 11n

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

